

4.17. Santa Ageda



Zo-ri-on, e-txe hon-ta-ko de-noi! O-les e-gi-te-ra ga-toz, a-te-rik-a-te ohi-tu-ra zaha-rra aur-ten be-ri-tze-ko as-moz. Ez gau-de o-so a-be-rats di-ruz, ez-ta e-re oi-ne-ta-koz. Bai-na ez-ta-rriz sa-no ga-bil-tza ta kan-ta nahi de-gu go-go-koz.

1

Zorion, etxe hontako denoi!
Oles egitera gatoz,
aterik ate ohitura zaharra
aurten berritzeko asmoz.
Ez gaude oso aberats diruz,
ezta ere oinetakoz.
baina eztarriz sano gabilta,
ta kanta nahi degu gogoz.

2

Santa Ageda bezpera degu
Euskal Herriko eguna,
etxe guztiak kantuz pozteko
aukeratua deguna.
Santa maitea gaur hartu degu
gure bideko laguna.
Haren laguntzaz bete gentzake¹
egun hontako jarduna.

3

Siziliako ugarte ederrak
emana digu lorea.
Han jaio baitzan gure Ageda,
zorioneko gaztea.
Txikitatikan gogoz hartu zun²
Jesukristoren legea.
Maitasun honek ekarri zion
bihotzeko poz betea.

4

Edertasunez jaunak apaindu
zuan³ Ageda gaztetan.
Haren begiak izar bi ziran,
aurpegi gozo haretan.
Gizon gaiztoen grina zitalak
esna zitzakeen benetan.
Laister izutu zan Kintziano
Agedaren ederretan.

1. Gentzake: genezake.
2. Zuen.
3. Zuen.

5

Agedak bere maite bakarra
Jesus aukeratu zuan.
Horregatikan beste maiterik
ez zan harentzat munduan.
Kintzianoren eske guztiak
errez baztertu zituan.
Baina agintari gaizto harek
kristautzat salatu zuan.

6

Emakume gaizto baten mende,
sartu zuten giltzapean,
Agedaren bihotz garbi hura
zikin ote zezakean.
Alperrik baina ahalegindu zan
andra lizuna lanean.
Honek esanak ez ziran sartu
Agedaren bihotzean.

Alkate jaunari

Alkate jauna, legean gatoz
baimen eskean atera,
kanta zaharrak galdu ez ditezen
lehengo ohitura piztera.
Guraso zaharren legean pozik
goaz danok kantatzera.
Santa Agedak ekarri gaitu
berorren etxe aurrera.

7

Amorru biziz oinutsik jarri
dute Ageda zintzoa,
txingar gorien gainean gero
ibilarazi gaixoa.
Ondoren, bular bat ebakita,
uzten dute urratua.
Baina Jainkoak bihurtu zion
gau hartan bular mindua.


8

Alperrik gizon gaiztoak zuten
oinazez erdi hilik utzi.
Jesukristoren maitasun hartan
ez zuan inola etsi.
Otoi gozotan gogoa isuriz
mundu hontatik ihesi,
zeruetako zori ederra
betiko zun irabazi.

Etxeko jaunari

Mendi tontorrak elurrez zuri,
atai¹ aldean laiotza.
Etxe hontako nagusi jaunak,
urrezkoa du bihotza.
Santa Agedak kendu digu gaur
eskean hasteko lotsa,
dirurik ez bada, berdin zaigu
gizendutako bildotsa.

1. Atai: atari.



Bikario jaunari

Apaizburu jaunaren atean
jo nahi degu gaur aurrena,
Jaungoikoaren ordezkoiari
gure agurrik onena.
Zeruko Jaunak argitu beza
berorren jardun zuzena,
zeru goietan izan dezagun
guztiok gure azkena.

Etxeko andreari

Zelai erdian loreak argi,
larros, krabelin ta lili.
Etxe hontako etxekoandreak
Ama Birjina dirudi¹.
Etxe hontako urdaiazpiko
asko, kakotik zintzilik,
ta lukainka gorriak ugari
poltsa betetzeko guri.

Senar-emazte gazteei

Itzal berria zabaldu digu
atai² aurreko intxaurrak³,
habe berriak sendotu ditu
etxeko sakape⁴ zaharrak.
Senar-emazte gazteak neurtu
dituzte beren indarrak:
Arto ta gariz beteko dira
aurten mandio baztarrak.

Etxeko alabari

1

Mutil gazteak atean gera
non dago etxeko larrosa?
Atera bedi azkar leihora
begiak ditzagun goza.
Eguzki berak ikusi nahi du
horren aurpegi panpoxa.
Nere emazte izan nahi balu
betea nuke nik poza.

2

Mutil taldea hementxe gaude,
danok gazteak eta gai,
mundu guztia igaro degu,
itsas, lehor, mendi, zelai.
Neskatx ederrak utzi ditugu
negar malkotan gure zai.
Baina guk neska danen artean,
hemengotxe alaba nahi.

-
1. Etxe hontako etxekoandreak Ama Birjina dirudi: maiz azaltzen den topikoa. Ikus *Erregeak datoz*.
 2. Atai: atari
 3. Intxaurrak: Intxaurrondoak. Baserritarren hizkeran normala da arbola fruituaren izenez ezagutzea.
 4. Sakape: teilatuaren hegalek ematen duen babesa.

Etxeko semeari

Tantai luzeak gerria zuzen
darama zeru aldera,
etxe hontako seme jatorrak
badu maitale aukera.
Alaba gazte asko dabilta
zugatik bihotz minbera,
mutilzahartuta bizi izateko
Jaunak egina ez zera.

Etxeko hurrei

Gau ederrean ilargi inguru,
izarrak zeru urdinean,
sukalde hortan amaren albo
haur ederrak jolasean.
Zerua hustu zaigu aingeruz,
horiek hemen jaiotzean
zeruko jaunak gordeko ditu
gizon egin bitartean.

Dendetan

Eskean gatoz, baina ez gera
ez ijito ta ez praile,
Santa Agedak atera gaitu
kaletara kantatzaile.
Denda honetan kajoitxo asko,
danak giltza ta zerraile,
estraperloko¹ kajoitik bota
peseta pare bat mile.

Tabernetan

1

Aspaldi hontan ura garesti
dabil esne ta ardota,
mahats gutxi izan arren, ardorik
ez da palta tabernetan.
Jesusek ura ardotu bazun
Kanaango eztaietan,
orain ikasle azkarrak sortu
zaizkio ardangeletan.

2

Ura gustatzen zaigu eskuak
ta aurpegia garbitzeko,
baina napar beltza behar degu,
eztarria bustitzeko.
Txanpaina ere edango genuke,
norbait balitz emateko.
Pattarra ez da gaizki etortzen
bizkarreko hotza kentzeko.

1. Estraperlo: espainieratik datorren hitza da. Strauss eta Perle izenen konbinaketaz sortu zen. Bi lagun horiek maizazko erruleta asmatu zuten eta 1934. urtean Espainian sartu nahi izan zuten. Errepublikaren azkeneko urteetan eta gerra ondoren batik bat prezio handietan egiten ziren legez kanpoko salmenta eta erosketak deitzeko erabili zen hitz hau. Eskrupulurik gabeko asko estraperloari esker aberastu zen gose urte haietan.

Allegretto non mosso

Be-dein-ka-tu-a, a-la-ba-tu-a al-da-re-ko sa-kra-men-tu-a.

Pe-ka-tu-a-ren man-txa-rik ga-be zei-na dan kon-tze-bi-tu-a.

Leloa

Dios te sal-ve, on-gi e-to-ri! Ga-bon Jain-ko-ak di-e-la! Le-ge-a-re-

Kopla

kin kun-pli de-za-gun San-ta A-ge-dan bez-pe-ran. Hau hai-ze-a-ren

e-pe-la, ai-re-an da-bil hor be-la. E-txe hon-ta-ko

jen-de lei-a-lak, Ga-bon Jain-ko-ak di-e-la.

Sarrera

Bedeinkatua, alabatua
aldareko sakramentua.
Pekatuaren mantxarik gabe
zeina dan konzebitua.

Leloa

Dios te salve, ongi etorri!
Gabon Jainkoak diela!¹
Legearekin kunpli dezagun
Santa Agedan² bezperan.

Koplak

1

Hau haizearen epela,
airean dabil orbela.
Etxe hontako jende leialak,
gabon Jainkoak diela¹.

2

Zapata zuri paperez,
euri danean batere ez.
Nagusi jauna, esan bezaigu
hasiko geran edo ez.

3

Horroko hor goian izarra,
errekaldean lizarra.
Etxe hontako nagusi jaunak
urre gorrizko bizarra³.

4

Horroko hor goian elorri,
hondoa jo ta erori.
Etxe hontako etxe⁴andreak
Ama Birjina dirudi⁴.

1. Jainkoak diela: Jainkoak eman diezaiela.

2. Kanta hau urte zaharrean ere erabiltzen denez, *Urte Berri* esaten da *Santa Agedaren* ordezkari egun horretan.

3. Gotiko garaiko arrastoa omen, Lekuonaren ustez, maiz azaltzen den losintxa hau. Garai horretan elizetako santuei urre koloreko bizarrak jartzen zitzaizkienez, haiekin parekatzen da etxe⁴ko jauna modu hone-tan.

4. Berrito topiko bera.

5

Etxeko seme zalduna
Jesukristoren laguna,
horla bakarrik gaizki zaude ta
behar zenduke laguna.

6

Etxeko alaba, non zera?
inon ageri ez zera.
Atoz honera ate ondora
gure ilunak kentzera.

7

Lau galai gazte badauzkat,
jarriko dizut aukera.
Neroni ere garaian nago
baldin gustatzen bazera.

8

Emango bauzu¹ emazu,
bestela ezetz esazu,
ate ondoan hotzak hiltzera
amak ez gaitu bialdu.

9

Eskupekoa hartu degu ta
orain abia gaitean²
adiosikan ez degu eta
agur ikusi artean.

Santa Agedaren *koplak* kantatzeko hainbat doinu dago. Aurrekoa ezagunena izango da ziur aski, musikagile askok zabaldu dutelako (Jesús Guridi, José Antonio Erauskin...) koruen giroan. Urolaldean kantatzen omen zen, Nemesio Etxaniz zenari kasu eginenez gero; Azkoitian behintzat bai. Berak jarri zituen lehenago azaldu diren bertso gehienak, bere gaztetan herrian kantatzen zirenak nola edo hala egokituz. Baina *Lur Berri-bila*³ liburuan argitaratu zituen eta geroago *Boga-boga* kantu bilduman eta gaur egun herri askotan kantatzen dira.

Beste leku askotan gorde den doinua, aldaketa txiki eta ugariz, *Dios te Salbe* da. Hau beti koblariaren eta koruaren arteko txandakatzean oinarritzen da. Hemen, Manuel Lekuonak jasotako Oñartzungo zahar batzuk jarri ditut. Batetik bestera ez da aldaketa handirik izaten. Doinu hau eta koplak besteetan ere erabiltzen dira, Urte Zaharrean eta San Juanetan esaterako.

Santa Agedak zergatik lortu duen hain arrakasta handia gure herrian, ez dakit. Garai batean Europa osoan zabaldu zen bere historia. Eta oraindik ere zenbait lekutan, Portugalen eta Galizian, gure artean baino sendoago dirau tradizio honek. Kastidadearen gaia mendeetan zehar oso estimatua izan da, eta akaso hor egon liteke gakoa.

1. Bauzu: baduzu.

2. Gaitean: gaitezen.

3. Etxaniz'tar Nemesio, *Lur Berri-bila*. Izarra Irarkola, Donostia, 1967.

Dena den, Santa Agedari buruz ezer gutxi daki Historiak. Siziliako Catanian jaiotakoa omen zen, palermotarrek ohore hori aldarrikatu arren. Eta bere martirioa Deciorengaraitan gertatu omen zen, otsailak bost zituen batean. V. mendean ba omen zegoen Erroman Santa honi eskainitako eliza bat. Bularra moztearen kontua ez da Santa Agedaren bizitzan bakarrik agertzen. Garai bateko irudi indartsua omen zen eta zenbait birjina martiriri egokitua. Xenpelarrek behintzat honela dio bere *Santa Barbararen bizitzan*:

Bularra moztu eta eraman
kalabozoan barrena.
Barbara bere hitzean firme,
aitak hori zuan pena.
Gobernadore batek eman du
erremateko ordena:
ezpatarekin bertan lepoa
kentzea dala onena.

Kanta bertsio batzuetan *Santa Iageda* esaten da elkarren segidako bi a bokalen kaka-fonia ekiditeagatik. Leku gehienetan Santa Agedaren bertsoak erronda kideen makilek lurra jotzean sortzen duten hots erritmikoaz laguntzen dira.